

ERAKUSKETA  
EXPOSICIÓN  
EXHIBITION

20 EKAINA JUNIO 2024 - 6 URTARRILA ENERO 2025

# ALLORA & CALZADILLA KLIMA

**Bilbao**

AZKUNA  
ZENTROA  
ALHÓNDIGA  
BILBAO

## AURKIBIDEA

Aurkezpena

Biografiak

Erakusketaren obrak

Programa publikoa

## ALLORA & CALZADILLA: KLIMA

- **Artistak:** Jennifer Allora eta Guillermo Calzadilla
- **Ekoizpena:** Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbao
- **Datak:** 2024ko ekainak 20tik 2025eko urtarrilak 6ra
- **Non:** Erakusketa Aretoa. Sarrera dohainik
- **Irekiera:** 2024ko ekainak 20, osteguna

Partner:

GIROA  VEOLIA

Laguntzailea:

LISSON GALLERY

**SERRAVES**

GALERIE  
CHANTAL CROUSEL



## **AURKEZPENA**

Jennifer Allora (1974, AEB) eta Guillermo Calzadilla (1971, Kuba) artista bisualek bikote kolaboratibo bat osatzen dute, eta Puerto Ricoko San Juanen bizi eta lan egiten dute. Ikerketara bideratutako praktika baten bidez, beren lanetan, historiaren, ekologiaren eta geopolitikaren arteko elkarguneak jorratzen dituzte, eta baliabide artistiko ugari erabiltzen dituzte horretarako, besteak beste, performancea, eskultura, soinua, bideoa, argazkia eta pintura.

«KLIMA» kontzeptua greziarren garaietatik dator, eta bizimoduak eguzkirantz bideratzeari egiten dio erreferentzia. Asmo handiko kronologia honetako artelanek azken data irekia dute, eta bizitza-forma guztiek hartzen dituzten eguzki-orientazioa jorratzen dute. Erakusketako lan bakoitzak klima bakan bat eratzen du, eta denek batera forma ematen diote azken 4.000 milioi urteak barne hartzen dituen elkargune kosmikoari.

Erakusketa honetan, Allora & Calzadilla artisten jardun diziplinartekoa eta kolaboratiboa gailentzen da, baita obra osoan dauden gaiak ere: denbora geologikoa eta Lurreko bizitzaren bilakaeraren historia, izaera postkoloniala, ingurumen-arloko justizia eta zor klimatikoa, geopolitika eta energia-iturriak.

“KLIMA” erakusketak nabarmentzen du performancean oinarritutako eskultura-lanek Allora & Calzadilla artisten ibilbide artistikoan duten garrantzia, eta horietako batzuk jartzen ditu ikusgai, bertako musikariekin lankidetzan.

## BIOGRAFIAK

### Allora & Calzadilla. Artistas



Jennifer Allora (1974, AEB) eta Guillermo Calzadilla (1971, Kuba) artista bisualek bikote kolaboratibo bat osatzen dute, eta Puerto Ricoko San Juanen bizi eta lan egiten dute. 1995ean elkarlanean hasi zirenetik, Allora & Calzadilla artistek bakarkako erakusketak aurkeztu dituzte munduko museorik garrantzitsuenetako batzuetan, hala nola New Yorkeko Arte Modernoko Museoan, Portoko Serralves Museoan, Berlingo Neue Nationalgalerie-n, Houstoneko Menil Collection-en, Londresko Serpentine Gallery-n, Turingo Castello de Rivoli Museo d'Arte Contemporanea zentroan, Minneapolisko Walker Art Center-en, Erromako MAXXI-n, Bilboko Guggenheim Museoan, Amsterdameko Stedelijk Museum-en eta Dia Art Foundationen, besteak beste.

2011n Amerikako Estatu Batuak ordezkatu zituzten Veneziako Bienalaren Nazioarteko 54. arte-erakusketan, asmo handiko proiektu batekin: Glória, Estatu Batuetako nazionalismo politiko, kultural eta ekonomikoan gainjartzen diren narratiben eta sinboloen kritika performatiboa.

## ERAKUSKETAKO ARTE LANAK

### **Lifespan (2014)**

Hadean aldiko rock erakustaldia, 3 kantari.

MUSIKA KONPOSIZIOA: David Lang

Artistaren eta Kurimanzutto galeriaren kortesia



Erakusgai dagoen lanik zaharrena *Lifespan* (2014) da. 4.000 milioi urteko harri-lagin bat, Acasta ibaiko Gneis konplexukoa, galeriako sabaitik zintzilik dago.

Aspalditik bikote artistiko honen kolaboratzailea den David Lang konpositore sarituaren partitura aurrelinguistiko bati jarraituz, hiru bokalistak sotilki erabiltzen dute haien arnasa, harria pendulu baten moduan mugitzeko, nolabait, higadura eolikoaren dinamika eta Lurraren eraldaketa bultzatzen duten indarrak gogora ekartzeko. Performanceak oraingo unea lotzen du planetak gure eguzki-sistemaren barruan duen jatorriarekin.

## Entelechy, 2020

Ikatza, 5 kantari.

David Lang-en konposizio musikala

4,3 x 9,5 x 14,8 m

Artista eta Lisson galeriaren kortesia



Areto nagusian *Entelechy* (2020) dago ikusgai, egur-ikatzeko eskultura bat, tximista batek jotako zuhaitz batekin egindakoa. Artistek lurperatutako eguzki-argiaren forma gisa interpretatzen dute materiala. Basa-pinua Montignac-eko (Frantzia) baso batekoa da. Leku horrexetan aurkitu zuten 1940an nerabe batzuek Lascaux haitzuloa, antzeko zuhaitz baten sustrai irauliek zehatz markatutako bideari jarraituz.

Haitzuloan aurkitutako giza irudi bakarra —gizaki eta txoriaren arteko hibrido bat— artistek David Langekin lankidetzan egindako ahots-interpretazio baten oinarria da. Enuntziatu erritmikoz eta energikoz egindako partitura aurrelinguistiko bati jarraiki, interpretatzaileek ahalegina egiten dute, haien ahotsen boterearekin, kantatzeko euskarria den zuhaitz ikaztua poetikoki pizteko.

## Penumbra, 2020

Ordenagailuak itzelezko animazioa sortu zuen, denbora errealean eguzki bidearekin sinkronizatzea, soinua.

Artista eta Fundação Serralvesen kortesia



Bitartean, *Penumbra* (2020), itzalak dituen animazio digitaleko artelana, erakusketa-gune osoan proiektatuko da. Aimé eta Suzanne Césaire poeta antikolonialistek, 1941ean naziek okupatutako Frantziatik ihesi joandako artista eta intelektual talde batekin, Martinikako Absalon haranean egindako ibilaldi mitikoetan inspiratuta dago. Artelanak eguzki-argiaren efektuak birsortzen ditu, baso trinko honen hostotza zeharkatzean, arrasto bisuala nolabait milaka kilometrora agertuko balitz bezala. Angelu batean proiektatuta dago, zeina eguzkiak Bilbo gainean duen kokapenaren denbora errealeko simulazio jarraituan oinarritua den. Obraren osagarri, musika-konposizio bat dago, “itzal-tonuetan” inspiratuta: fenomeno psikoakustiko hori sumatzen da bi tonu erreal elkarren gainean jarri, eta hirugarren baten presentzia sortzen dutenean.



## Graft, 2021

Kloruro eta pintura polibinil birziklatua, dimentsio aldakorra.


Artista, Galerie Chantal Crousel eta Colección Isabel eta Agustín Coppel.



Era berean, erakusketa-gunean sakabanatuta, Graft (2021) obra dago. Instalazio horretan, polibinilo kloruro birziklatuan urrutako milaka lorek tabebuia zuhaitzaren loreak erreproduzitzen dituzte, haize arrotz batek lurrean barreiatu izan balitu bezala. Karibeko zuhaitz autoktono horren eskuz margotutako petaloak deskonposizio-maila desberdinetan aurkezten dira, hala erori berriak, nola zimel eta arre daudenak. Graft artelanak erreferentzia egiten die ustiapen kolonialaren eta klima-aldaketaren eragin korapilatuen ondorioz sortzen ari diren ingurumen-aldaketei. Jatorri petrokimikoko material batetik sortutako zuhaitz tropikalen loreen presentzia ezohikoa zantzu indartsua da, mendeetako arpilatze kolonialaren ondoren etengabe izaten ari diren galera neurrigabeen iragarpena.

**Cadastre (Meter Number 18257262, Consumption Charge 36.9kwh x \$0.02564, Rider FCA-Fuel Charge Adjusted 36.9 kwh x \$0.053323, riderppca-Purchase Power Charge Adjusted 36.9kwh x \$0.016752, Rider CILTA-Municipalities Adjusted 36.9kwh x \$0.002376, Rider SUBA subsidies \$1.084), 2020**

Burdinazko filtroak lihoan.  
1,8x 21,3m  
Artista eta Lisson galeriaren kortesia



*Cadastre* (2020) paisaia piktoriko ibiltaria da, aldi berean abstraktua eta erreferentziala. Artelanak 1,8 metroko altuera eta 21,3 metroko luzera ditu, eta galeriako paret oso bat hartzen du. Elektromagnetismoa, naturaren funtsezko lau indarretako bat, hartzen du gai eta errepresentazio-bitarteko gisa. Artelan hau egiteko, burdinazko karrakak erortzen uzten dituzte kobrezko kable elektrifikatu batzuen gainean jarritako mihise baten gainera. Etengailua piztean, korrante elektrikoaren ondorioz, partikulek eremu elektromagnetikoak zehaztutako forma eta patroiz batzuk eratzen dituzte. Horiek mugimenduan jartzeko, mihise tenkatua leunki kolpatzen dute behin eta berriz, eta, horren ondorioz, pieza astunak jauzi egin, eta polo positibo eta negatiboetara jotzen dute. Erakarpina eta arbuioa, indarra eta ahulezia, metatzea eta sakabanatzea dira mihiseetan bereizmen formala aurkitzeko erabilitako tresnetako batzuk. Hala ere, lortutako oreka erritmikoak ez ditu isiltzen obraren itxura bera baldintzatzen duten

ezkutuko indarrak, burtsako zikloetatik hasi eta erregai fosilak erretzeraino. Elektromagnetismoan oinarritutako esperimentu artistiko hauek aldi berean dira printzipio formalen esplorazioa eta sare energetikoa den lotura konplexuari aurre egiteko modu bat.

### **The Great Silence (2014)**

Kanal bakarreko bideoa eta soinua  
16:32  
Artistaren kortesia



Azkenik, Auditorioan *The Great Silence (2014)* lana proiektatuko da, Areciboko irrati-teleskopioa eta hura inguratzen duen Río Abajoko basoa ardatz dituen bideoa. Puerto Rico dago, desagertzeko arrisku larrian dagoen Amazona vittata espezieko azken loro-populazioaren bizilekuan. Allora & Calzadilla artistak Ted Chiang zientzia-fikziozko idazlearekin lankidetzan aritu ziren gidoi batean. Azpitituluak ditu, fabula batean oinarrituta dago, eta hausnarketa egiten du bizidunen, ez-bizidunen, gizakien, animalien, eta izaki teknologikoen eta kosmikoen arteko ezin murriztuko arrakalez. Lan honetan, eguzkia izar kopuru amaigabe bat besterik ez da, eta, hor, bideoko protagonistak dioten bezala, «ahotsen kakofonia bat egon beharko luke baina, horren orde, isiltasun harrigarri bat dago. Orain dela ehunka urte, nire espeziea hain zen ugaria, non basoak gure ahotsekin oihartzun egiten baitzuen. Orain, ia desagertu gara. Aurki oihan hau unibertsoko gainerako toki guztiak bezain isila izango da».

Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaon erakutsi ondoren, *The Great Silence (2014)* lana Madrilgo La Casa Encendidan erakutsiko da.

## Seeing Otherwise (1995)



Erakusketari lotuta, Allora & Calzadillaren *Seeing Otherwise* (1995) argazki-lanaren sail mugatu bat editatu da.

Irudia batez ere Puerto Ricoko itsasaldean hartutako itsas paisaia fotografikoen lan baten parte da. Argazkiaren manipulazio digitala hautemanezina da ia, eta itsasoaren gaineko eguzkiaren izpiak desbideratzen dira kameraren lentetik ilunabarrari begira dagoen pertsonarengana. Aldaketa horrek beste modu batean ezin ikus litekeena nabarmentzen du: beste pertsona batek eguzkia sartzen denean ikusten duena

Allora & Calzadillak zenbakitutako eta sinatutako 100 argazkiak salgai egongo dira dendAZen, Azkuna Zentroko saltokian.

## **PROGRAMA PUBLIKOA**

### **Performanceak**

#### ***Lifespan (2014)***

Lifespan soinu-performancea Allora&Calzadilla artisten eta David Lang konpositore estatubatuarren arteko lankidetzaren da. Performerrek txistu eta putz egiten dute sabaitik zintzilik dagoen harri baten aurrean. Harriak lau mila milioi urte ditu eta aldi hadearrekoa da. Haien arnasak sotilki bultzatzen du harria, pendulu bat balitz bezala, mugimendu mekanikoaren forma poetiko bat izan daitekeena osatuz. Soinu-aktibazio honek Lurraren jatorriarekin lotzen du oraingo unea, planetaren eraldaketa ekologikoa izaki bizidun bakar batek ere ikusten ez zuen garaiarekin.

#### ***Entelechy (2020)***

David Langek soinu-pieza bat konposatu zuen, Allora&Calzadilla artistekin batera, Entelechy lanerako. Ekaitz batek errolik erauzi zuen zuhaitzaren eskultura da, bide eman ziona Lascaux haitzuloaren eta haren historiaurreko irudikapenen aurkikuntzari.

Allora&Calzadilla artistentzat, Entelechy potentzialtasun osoko zuhaitz bat da, energia-erreserba bihurtutako eguzki-argikoa, eta, bertan, txorien soinuak imitatzen dituzten giza ahotsak nahasten dira.

Pieza honen soinu-aktibazioan, performerrek David Langen jatorrizko partitura interpretatzen dute. Hainbat txoriren melodia gainjarriek musika-partitura saturatu bat eratzen dute: makinaren zatia, animalien zatia eta giza zatia. Beren enuntziatu kementsuen bidez, itxuraz kantariak kantatzeko euskarri duten zuhaitza pizten saiatzen ari dira.

### **Egunak**

Ostirala, ekainak 21

Larunbata, ekainak 22

Igandea, ekainak 23

Osteguna, ekainak 27

Uztaila:

Osteguna, 4, 11, 18 eta 25

Abuztua:

Osteguna, 1, 8, 15, 22 eta 29

Iraila:

Osteguna, 5, 12, 19 eta 26 eta asteazkena, 25

Urria:

Osteguna, 3, 10, 17, 24 eta 31

Azaroa:

Osteguna, 7, 14, 21 eta 28

Abendua:

Osteguna, 5, 12, 19 eta 26

Urtarrila:

3, 4, 5 eta 6 (osteguna, ostirala, larunbata eta igandea)

Ordutegia

18:00-18:20 Entelechy obraren soinu-aktibazioa

19:00-19:15 Lifespan obraren aktibazioa

Erakusketa Aretoa

Sarrera dohainik

**The Great Silence (2014)** ikus-entzunezko lana hilean behin proiektatuko da Auditorioan.

16' 32" / JB (ingeleza)

Osteguna, ekainak 20 / Inaugurazioa 19.00-21.00

Osteguna, uztailak 18 11.00 – 20.00

Osteguna, abuztuak 8 11.00 – 20.00

Osteguna, irailak 12 11.00 – 20.00

Asteazkena, irailak 25 11.00 – 20.00

Asteazkena, urriak 9 11.00 – 20.00

Asteazkena, azaroak 20 11.00 – 20.00

Osteguna, abenduak 19 11.00 – 20.00

Astelehena, urtarrilak 6 / Amaiera 11.00 – 20.00

Auditoria

Sarrera dohainik

### **Familientzako bisita-programa**

Ibilbide irekia, erakusketako lan bakoitzaren inguruko jarduerak eta jolasak biltzen dituen paperezko gida baten bidez, familia-elkarrizketa sortzeko eta hari buruzko begirada eta hausnarketa bitxia sustatzeko.

### **Erakusketaren sarrerako bisitak**

Ekainaren 4tik aurrera, ostegunero 18: 30etan

Euskara eta gaztelania. Hileko lehen ostegunean bisita euskaraz da.

Sarrera dohainik aldeztu aurretik izena emanda: AZ Info/Erakusketa aretoa

944 014 014/info@azkunazentroa.eus